



Gorostidi-Voith urbanizatzeko hitzarmena onartu dute Tolosan

ETXEAK ▶ 675 etxe egingo dituzte; EAJ, EB, PSE eta PP alde eta EA eta TB aurka agertu dira

118 ▶ Tolosana paperfabrikan 50 etxe eta Igarondo igerilekuan beste 68 eraikiko dituzte ▶ 2



PP, EAJ, EB eta PSE-EEko Gorostidi-Voith hitzarmenaren aldeko botoa ematen herenegungo udalbatzarrean. LEIRE MONTES

TOLOSA ▶



J.SAIZAR

Jauregi omendu dute 5. urtemugan

«Armak uztea» eskatu dio Oscar Renedok ETArri ▶ 3

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Abuztuko herrietako jaietako egitarauak

Hamaika herritako ospakizun nagusiak bildu ditu HITZAK ▶ 4-5

TOLOSALDEA ▶

Bihar, segan eta aizkoran ▶ 7

VILLABONA ▶

Koadriletako 600 bat lagunek Txermin bete dute bere egunean

Gaur hurrek gozatua hartuko dute Santio jaietan ekitaldi ugariarekin ▶ 6



Koadrilen arteko bazkaria Txermin ikastolan. IMANOL GARCIA

UDALA ▶

Gorostidi-Voith eremuaren urbanizazio hitzarmena onartu dute, EAK kontra bozkatu arren

EAJk, EBk, PSEk eta PPK eman zuten aldeko botoa bilkuran; EA eta Tolosa Bizirik «kritiko» mintzatu ziren; beste hainbat hirigintza proiektu ere eztabaidatu zituzten

LEIRE MONTES

Luze joan zen, herenegun, urte politikoaren azken osoko bilkura. 13:00etan hasi eta 16:30ak jota zirela amaitu zen. Hainbat hirigintza proiekturen hitzarmenak jasotzen zituen gai zerrendak, garrantzi handiak horietako asko, eta berehala eman zuten elkarriketarako eta eztabaidarako bidea.

Horietako bat zen Gorostidi-Voith eremuarena. Gunearen urbanizazio hitzarmena EAJren, EBren, PSEren eta PPren botoekin onartu zen —11 aldeko boto izan ziren, EAJko Andoni Imaz eta PSEko Jose Luis Vilanova ez baitziren osoko bilkuran egon. 15 zinegotzi ziren udalbatzarran; 17 dira guztira—. EAK lau zinegotzik, aldiz, kontra bozkatu zuten.

Voith eta Gorostidi enpresak Apattaerrekara lekualdatzea eta eremu horretan 675 etxebizitza eraikitzea jasotzen du onartutako proiektuak. Jokin Bildarratz alkatearen esanetan, «herriko enpresak babes- eta sustatzea, eremuko herritarrei bizileku berria ematea, eta utzita dagoen eremua berreskuratzea» du helburu. 675 etxebizitzetatik 135 izango lirarteke babes ofizialekoak (BO), eta 290 tasatuak. «Tasatuek 32 milioi pezeta inguru balioko dute, eta prezio hori ezin izango da aldatu hiru urteko epean, hau da, 2008ko uztailearen 31 arte. Gainera, zozketan sartu ahal izateko baldintza batzuk bete beharko dira; hala, irailetik aurrera irizpideak finkatzeko talde bat sortu nahi dugu, inplikatu guztiekin». 1.500 aparkaleku plaza inguru ere ahalbidetu nahi du Udalak —1.300 bat lur azpian—. Lanak 2009ko udaberrian amaituta egotea espero dute.

Urbanizazio proiektu horrek hiru galderei erantzuten diela azaldu zuten alkateak. Alde batetik, gazteak herritik alde egitearen zergatia: «1994tik 2004ra 17 eta 35 urte bitarteko 2.527 gazte alde egin zuten Tolosatik. Beren etxebizitza eskareri eta beharrei erantzun nahi die proiektu honek. Bestalde, Tolosako eta Tolosaldeko zen-



EAK lau zinegotziak, eskuinean, hitzarmenaren aurka bozkatzeko, herenegungo udalbatzarran. L.MONTES

bait enpresaren zailtasun egoera ikusita, horiek sortzeko eta indartzeko esfortzu handiagoa egin behar dugula uste dugu. Udalak egindako azken hitzarmen urbanistikoa Renferekin izan zen: etxebizitzaren %80 zen libre, eta %20 BOKoa. Hori al da jarraitu nahi dugun balorazio politikoa?».

Historia apur bat ere egin zuten. Proiektua 1992an hasi zela gogoratu zuten. EAK Udala gobernatzen zuenean: «250 etxebizitzaren inguruan hitz egiten zen orduan, baina ez zen aurrera atera. Une honetako proiektuak aurreko izpiritua jasotzen du, baina globaltasun handiagorekin eta etxebizitza gehiagorekin». 1998ko udaberrian zenbait promotore elkartu ziren; 110 etxebizitza gehiago jasotzen zuten proposamenak, %80 libre, eta %20 BOKoa, baina bere horretan geratu ziren. Hirugarren fasea azken legegaldian izan zen: «EHren ardurapean zegoen Udala. 2001eko udaberrian Udalaren eta jabeen arteko harremana hasi zen. 2002an arkitekto bati enkargatutako proposamen papiroa aurkeztu zuen Udalak, baina enpresariak ez zuten onartu. Haiek ere proposamen bat aurkeztu zuten azaroan, baina ez zen aurrera atera. Harrezkero, ez zen kontakturik izan». Legegintzaldia amaitu baino lehen, 2003ko apirilean, enpresariak lehiaketa egin zuten promotoreak kontratatzeko: «Hortik atera ziren ondoen ordainduko zutenak. Eta horie-

kek dira orain gelditu direnak. Udalak hor ez du ez zerikusirik ezta zer esanik ere».

Alderdien erantzunak

Berehala iritsi ziren beste alderdien erantzunak. EBko Jose Mari Vieitesek enpresen eta lanpostuen biziraupena ziurtatzeko «bide legalak bilatzeko Udalaren konpromisoa» hitzarmenaren sartzea proposatu zuten. Boko etxebizitzaren adjudikazioan Etxebide esku hartzea, espekulazioa saihestea eta ordaintzeko epeak eta kopuruak berraztertzea eskatu zuten, era berean. Gainera, Udalaren lurraren eskubidearen %10a lur publikoan edo Boko etxebizitzetan inbertitzea jo zuen hitzarmena onartzeko baldintzatzat. PSEko bozemaile Oscar Renedok, proiektuaren garrantzia azpimarratzearekin batera, bat egin zuen EBren eskariekin. Udalak %10 BOKo etxebizitza gehiago eraikitzeko konpromisoa hartu behar duela ere azpimarratu zuten. Angel Yañez PPKo ordezkariak etxebizitza tasatuen prezioa ezin aldatzeko epea bost hilabetez luzatzea, 2008ko abendura arte, eskatu zuten. EAJk proposamenak onartuta atera zen aurrera hitzarmena.

«Proposamenaren izpirituekin bat» egin arren, EA oso kritikoa agertu zen bilkuran. «Datu batzuekin ari ginen. Bat batean, kasualitatez, beste bat agertu eta proposamena egin zuten. Gure harridura hona hori

ekarri denean! Lurzoruaren prezioa arrazoi jarrita, korrika eta presaka jarraitu da aurrera. Eta hori ez da modua. EAK aurka egingo du», esan zuten, tinko, Onintza Lasa bozemaileak. Bere alderdiaren proposamena ere jarri zuten mahai gainean: 500 etxebizitza, %60 BOKoak. «Ez da guk nahi gure keena, baina ez dugu erlauntzik nahi. Gaur egungo zifrekin ari gara. Uste dugu beharrei erantzuten diela era batean. Eta oreka bilatuz egin dugu».

Tolosa Bizirik-eko udal ordezkari Antton Izagirre eta Hektor Espin ere zorrotz mintzatu ziren, jendartetik. «Udalari lidergoa exijitzen diogu horrelako gaietan, eta ez presaka aritzea. Sukaldatutako platera ekarri zaio Udalari. Jakin gabe zenbat etxebizitza egitekoak ziren, oraindik plangintzarik ez egon arren, proposamena egin zuten enpresak, eta baita Udalak onartu ere. Prozesua ez da ondo eraman, seriotasunik eza nabaritu dugu. *Pelotazo* handia egon da, eta EAJk ahalbidetu du. Hitzarmena ez da udalarekin negoziatu». «Prozesua gardena eta irekia izan balitz» TBek onartu egingo lukeela gaineratu zuten, eta «dagokizkigun aukiekin oposizioa handiagoa» izango zela nabarmentu. Beste etxebizitza motei buruz «eztabaidatzeko zirkuiturik ez» dutela utzi salatu zuten udal ordezkariak.

Larramendi kaleko bizilagun bat ere kezu agertu zen: «Eraikitzaile asko aurkeztu zen

proiektura; baina aldametako asko izan dira, eta nik uste dut horren berri ez zaiela guztiei eman, ez dute bigarren aukerarik izan. Nik bakarrarekin hitz egin ahal izan dut. Eta hori ez zait bidezkoa iruditzen».

Tolosana paperfabrikaz

Arau subsidiarioetarako Igarondo eta Elduarain eremuei buruzko urbanizazio hitzarmena, berriz, aho batez onartu zuen udalbatzarrak. Tolosana paperfabrikaren gai da hori. Zailtasunei aurre egiteko, Leizaran-ekin bide berri bati ekingo dio, Andoainean. Lurzoru hori Udalak erosi, eta urbanizazio proiektua aurkeztu du.

Tolosanako ordezkariak bilkuran azaldu zuten, iazko udaberrian hasi zen bi enpresen arteko harremana. Azaroko sindikatuak eta enpresa komiteak biltzen joan ziren, eta «egoera ulertu» zuten: «Lehiaketara ateratzeko zorian izan ginen. Ahal eta kalte gutxien eragiten saiatu gara». Maiatzaren 31n itxi zuten itun ekonomikoa, eta ostiralean onartu zuten batzarrak. 24 langilek galduko dute beren lanpostua, horietako asko aurretiko erretiroarekin. Atzo bertan sinatu zuten hitzarmena.

Eremua Igarondo igerilekua dagoen lekuarekin batu du Udalak proiektu berrian. Hala, Tolosana dagoen lurzoruaren 50 etxebizitza libre eraikiko dituzte. Eta igerilekuaren eremuan 68 —«hasiera batean pentsatzen zena baino 18 gehiago»—, guztia babes ofizialekoak, Udalarenak, eta garajeekin. Bidebieta auzoarekiko lotura ere egokitu da, arrapalekin eta igogailu publiko batekin. Zumardandi Handiko eta Igaralde eremuetarako 130 milioi pezeta jasoko ditu Udalak. «Promotora horrekin hitzartzeagatik kritikak jasoko ditut agian. Baina beste era batera ez genuke hainbesteko etekinik jasoko herritar guztien mesederako», azaldu zuen Bildarratzek. Tolosana eta Udala «beti eskutik» joan direla ere esan zuten.

Bestetik, Beotibar kalearen luzapenerako Construcciones Aitz-Ondo-rekin hitzarmena, Udate hiritarrentzat zerbitzua irailetik aurrera martxan jartzea, eta Leidor birmoldatzeko bigarren faseko gastua aho batez onartu zuten batzarrak. Zerkasirako konpromisoa kreditua ere onartu zuten. Baina EAK kontra bozkatu zuten: «Aurrekoaren ondorio da ezezko hau. Proiektuarekin ados ez gaudela esan dugu behin eta berrero, eta, hortaz, orain ere aurka azalduko gara. Kaso egin behar zaio jendearen iritzari, eta beste alderdien ekarpenei».

TOLOSA ▶ POLITIKA



Oscar Renedo hizketan; aurrean, alarguna eta alaba. J.SAIZAR

ETArri «armak uztea» eskatu dio Renedok

Juan Mari Jauregi gogoan izan zuten bere hilketaren bostgarren urtemugan

JOXEMI SAIZAR

Juan Mari Jauregi Gipuzkoako gobernadore zibil eta PSE-EEko zinegotzi ohia omendu zuten atzo eguerdian Tolosan, ETak hil zuela bost urte bete zirela eta. Lore eskaintza egin zioten lagunek, alderdikideek eta hainbat udal ordezkariak Fronton kafetegiaurrean, hil zuten tokia.

Ekitaldian IRAK ezagutzera eman berri duen suetena izan

zuten hizpide hizlariek. Juan Manuel Egiuren buzuzagi sozialistak «albiste ona» bezala definitu zuen. Oscar Renedo zinegotziak «armak uztea» eskatu zion ETArri. Jauregiaren alargunak, Maixabel Lasak, horrelako omenaldi ekitaldiak zabaltzearen alde agertu zen.

Aurretik goizean lore eskaintzak egin zituzten Burnikurutzetan dagoen orotarrian eta Legorretan dagoen eskulturaren.

TOLOSA ▶

Turistentzat eskuragarri, Tolosako Alde Zaharra

Oraintsu argitaratu berri du 'Tolosa monumental' liburuxka Udalak

J. ASTIBIA

Tolosako ondare arkitektonikoa eta artistikoa ezagutzera emateko helburuz, Tolosako Udalak, Alde Zaharreko Batzorde Mistoaren ekimenez, *Tolosa monumental* liburuxka argitaratu berri du, Tolosara etortzen diren turistentz, «euren jatorrizko herrietara doazenean, Tolosa herria ezagutzera eman dezaten», HITZARA igorritako prentsa oharrak dionez.

«Kalitateko liburuxka» egin nahi izan omen dute, eta «oso ikusgarri eta era berean oso grafikoa den formatoan» argitaratu dute, eta herrian zeharreko bi ibilbide proposatzen dituzte. Bata, Alde Zaharrean zeharrekoa, bertan dauden eraikuntza eta leku apartak ikusiz egin daitekeena; liburuxkan horien guztien kokapen planoaz gain, bakoitzaren ezaugarri eta historia ageri da, eta baita irudi tridimensionalak ere. Bestea, «CIT-en laguntzarekin osatutakoa», zehaztu dutenez, herrian dauden eskulturak ikusiz egin daitekeena.

Bertako historia eta usadioei buruz ere baditu azalpenak, bukaeran, herriko ostatu eta jatetxeen zerrendarakin osatuta dagoelarik.

KOMUNIKABIDEAK ▶

Abuztuan zehar ere, Txolarre Irratia piztuta

Ikasturteko saio bereziak aditzeko aukera izateaz gain, jaien berri ere emanen dute

JAIONE ASTIBIA

Abuztua askorentzat atsedenarako tenorea izaten da, baita komunikabide zenbaitentzat ere, eskuartearen duzuna kasu, baina beste batzuentzat ez da horrelakorik, ez oso osoan behinik behin. Horieta-koa da FMko 107,5 eta 101,2-n aditzen den Txolarre Irratia. Halaxe jakinarazi dute bertatik.

Izan ere abuztu osoan zehar, egunero-egunero hiru aldiz uhinetaratuko dira, 11:00etan, 15:00etan eta 20:00etan, zehatz esateko, *Iragarkiak* saioarekin. Saio horiretan, egunear-egunekoak, eskualdean diren festa eta jaien inguruko berriak emanen omen dituzte, «Larraulgo, Zizurkilgo, Ibarako festen berri emango dugu esate baterako», zioten bertatik; eta gainera, «egunear sortzen diren oharrak» ere hedatuko omen dituzte.

Inguruetako jaien berri

Honen harira, bide batez, aita- zuten, eta eredu gisa soilik ez, hain zuzen ere, «Txolarre Irratiak Ibarako sanbartolometan jarriko duen txoznan txanda egin nahi izanez gero, 943 698 038 telefono zenbakira deitu» behar omen dela.

Horrela, bada, astelehene- tik igandera, irratsaio «berriak», egunekoak, aieratuko dituzte. Baina gainerako orduetan ez dira mutu geldituko

uhinak, Txolarren. Asteregunetan, alegia, astelehene- tik ostiralera, iluntzetan bi saio entzuteko aukera izanen baita.

Elkarrizketak eta musika

Alde batetik, 20:00etatik aurrera, «ikasturtean zehar egin ditugun elkarrizketetako batzuk errepikatuko» baitituzte, ziotenez. Egun bakoitzean gai desberdinekin lotutakoak emittituz: astelehene- tan per- tsonaiak, asteartean gai so- zialak, asteazkenean kirolak, ostegunetan bidaiak eta osti- raletan musika. Gai hauekin guztiekin ikustekorik zuten gonbidatuekin bere garaian egingako elkarrizketak entz- ungai izanen dira berriz, or- duan, *Basetxea tabernako* lehiakideena, Saharar Herri- rekin lotura duen Fatimetur- na, Joseba Otaegi aizkolari gaztearena, Aitziber Ibarbia bidaiariarena, Samaniego Kantariko kideena eta beste askorena.

Eta gau parterako, 22:00- etan hasita, musika saioak izan- nen dituzte entzungai, Txola- rreko entzuleek. Kasu hone- tan ere astezko egunetan izanen direnak, eta egun ba- koitzean musikari tratamendu desberdina emanen dietenak. Astelehen eta ostiraletan, *Ar- kako show* saioa aieratuko dute; asteartean, *Street Noise* saioa; asteazkenean, *Elektro gaua*; eta ostegunetan, *Gau bero*.

hitza *lagunen txokoa*

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

ILUMINAZIOA
SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

VILLABONA ▶ SANTIOAK

Koadrilek Txermin bete dute

Haurrek gozatua hartuko dute gaur erraldoi eta buruhandiekin, pailazoekin...

IMANOL GARCIA

Txermingo ikastolaren aterpea guztiz bete zen atzokoan. Koadrilak, bakoitzak bere kamisetarekin, bazkaltzeko bildu ziren. 600 bat lagun izango ziren, edade guztietakoak, bazkari jendetsuan.

Gaur, festen azkenaurreko egunean, haurren eguna izango da. Erraldoi eta buruhandiak, Ezinezkoen feria eta pailazoak izango dituzte egunean zehar txikienek. Goizean sokamuturra izango da eta, besteak beste, halterofilia erakustaldiaz gain, futbito txapelketaren finalak izango dira.

Bestalde, gaur jolas pareki-deak egingo dira plazan. Jai Batzordetik jaietan emakumea-



Giro bikaina izan zen Koadrilen arteko bazkarian. I. GARCIA

ren presentzia bultzatu behar zela ikusirik, adin ezberdineko herritarren arteko joku hauek antolatatu ditu aurrean. Helburu nagusia ondo pasatzea eta

parte hartzea bultzatzea da. Lau talde ariko dira proba ezberdinak eginez eta talde irabazlea izango da baina ez da saririk egongo.

EGITARAUA ▶ GAUR

Haurren Eguna.

- 09:00.** Sokamuturra Plazan.
- 10:30.** Erraldoi eta buruhandien irteera.
- 11:00.** Ezinezkoen Feria haur jaialdia plazan.
- 12:00.** Halterofilia erakustaldia Berdura plazan: Olaederra-Danena eta Bizkaiko selekzioa.
- 17:00.** Kiki, Koko eta Moko pailazoak Txistularien plazan.
- 17:00.** Emakumeen parte-hartzea sustatzeko herri-jolasak.
- 19:00.** Futbito txapelketaren finalak plazan.
- 22:30.** Bertso saioa Arroan
- 23:00.** Triki Ta Ke taldearen kontzertua plazan.

IBARRA ▶

Adinekoek lapurretak salatu dituzte azken egunotan

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udaletik jakinarazi dute azken egunetan bikote bat —itxuraz haurdun dagoen eta kamiseta arrosadun emakume bat eta gizon gazte bat— adineko emakumeen etxeetara joan dela, bakarrik dauden unean, eta ura kobratzeari loturiko alegiazko udal zor batzuk erreklamatzeko aitzakian etxeetan sartu eta egoeraz baliatuz lapur-tu egiten dutela.

Adineko bi emakumerengandik jasotako salaketak ikusita, Udalak jakinarazi nahi du ez dela inolako udal zerbitzuri loturiko zorrik kobratzen ari, eta horregatik, baimenik gabeko pertsonez ez fidatzeko.

Bestalde, horrelako gertakarien berri dutenek aginte polizialei parte ematea gomendatzen dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

Eresargi abesbatzaren kontzertu jendetsua santiotan

Herriko festen baitan ekitaldi berezia izan zen Santa Ana eguneko gauean. Eresargi abesbatzak kontzertua eskaini zien herritarrei Gurea antzokian. Billabonatarrek aretoa goraino beteaz erantzun zuten. Kontzertu berezia arrazoi askorengatik izan zen. Alde batetik aurretik 20 urte beteko dituzte abesbatzak bere ibilbidea hasi zuenetik. Bestetik urte guztian zehar aritu dira emanaldia prestatzen. Izan ere egitarau zabala eta mamitsua abestu zuten. Gainera, abesti

hauek eta beste batzuk osatuko dute urteurrena ospatzeko abesbatzak grabatuko duen diskoa. Eguberrietako abestiak —tartean bat Perukoa—, euskal folklorekoak —tartean armonia aldetik zailtasun handia duen Javier Bustoren *Zutaz*—, habanera, musika kubatarra eta filipinarra eta beste abestu zituzten. Saio berezia izan zen ere, abestiekin tartekatuz, Juan Kruz Igerabide idazleak, bere alaba Oihanek harparekin lagunduta, poesia emanaldia egin zutelako. ◀



Eresargik emandako kontzertuaren une bat. HITZA

LARRAUL ▶ SANESTEBANAK

Datorren asteazkenean botako dute txupinazoa

ERREDAKZIOA

Larraulen herriko festak izango dituzte aurki. Gaur bertan pala txapelketaren finalerdiak egingo badira ere asteazkenean, abuztuak 3, botako dute txupinazoa eta jaitsiko dute *Pello Joxepe*. Hurrengo igandearte izango dituzte ekitaldiak San Esteban jaietara gerturatzaren direnak.

Katillutxulo elkarteak, esaterako, hainbat afari eta bazkari egingo dira festetan zehar. Musikari dagokionez, Etxabe anaien erromeria, Freezen eta Jauko Barik taldeak, eta dantzaldiaz gozatzeko aukera Holako taldearekin eta DJ Bull-ekin.

EGITARAUA ▶

GAUR

16:30. Pala txapelketako finalerdiak.

ABUZTUAK 3, ASTEAZKENA

- 11:00.** Meza nagusia.
- 12:00.** Hamaitakako herrikoia Katillutxulo elkarteak.
- 13:00.** Haur jolasak.
- 18:00.** Txupinazoa eta Pello Joxeperen jaitsiera.
- 18:30.** Pala txapelketako finala.
- 22:00.** Erromeria Etxabe anaiekin.

ABUZTUAK 4, OSTEGUNA

22:00. Kontzertua: Freezen

eta Jauko Barik Herri Ostatuan.

ABUZTUAK 5, OSTIRALA

- Haurren Eguna.**
- 11:30.** Puzgarriak egun guztian zehar frontoian.
- 14:00.** Haurren bazkaria Katillutxulo elkarteak.
- 16:30.** Ipuin kontalaria.
- 21:00.** Gazte afaria Katillutxulo elkarteak.
- 23:30.** Dantzaldia Holako taldearekin.

ABUZTUAK 6, LARUNBATA

11:00. Esku pilota txapelketa haurrentzat (herriko tabernan eman behar da izena).

- 16:00.** Mus txapelketa Katillutxulo elkarteak.
- 19:00.** Sagardo dastaketa.
- 21:00.** Herri afaria Herri Ostatuan (txartelak bertan salgai).
- 23:30.** Dantzaldia DJ Bull-ekin. Goizaldera txokolatada.

ABUZTUAK 7, IGANDEA

- 11:30.** II. Tortila Patata Txapelketa.
- 18:00.** Herri kirolak.
- 19:00.** Bertso saioa: Joxe Agirre, Jon Maia, Aitor Mendiluze eta Sustrai Kolina.
- 22:30.** Erromeria Ansoregi eta Larrafiaga trikitilariekin.

LIZARTZA ▶ KULTURA

Kaxianori omenaldia egingo diote irailaren erdialdean

Hitzaldiak, herritarrek prestaturiko kantuak, antzezlanak... izango dira



Kaxianoren omenaldia antolatzeneko komisioko kideetako batzuk, bilera batean. I.TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Hiru urte igaro dira —2002ko urtarrilaren 29an zendu zen— Kaxiano Ibaguren Bolinaga hil zenetik, eta azken hilabeteetan lizartarrak buru belarri ari dira lanean soinu-joleari, bertsolariari, idazleari... behar bezalako omenaldia egiteko. Hain zuzen ere, datorren irai-

laren erdialdean omenduko dute Lizartzako itsua edo *Kaxa* —hala deitzen zioten lagunartean—. Lizartza herriaren eza-gutza zabaltzen gehien lagundu dutenen artean egonik, herritarrek beraien ahalmen artistikoak erabiliz omenalditxo bat egitea erabaki zuten, «ederki merezia baitzuen». Horrela, omenaldia egiteko komi-

sioa eratu zuten, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte irailaren 20tik 25era bitarte. Lau egunetan zehar banatuko dira ekitaldiok; lehenengo bietan haren bizitzari buruzko hitzaldiak eskainiko dituzte, eta hurrengo bietan bertsoak, musika, meza, dantza, antzerkia eta bazkaria izango dira besteak beste. Azpimarratzekoa da irai-

laren 24ean izango den jaialdia herriko artistek eskainia izango dela, hau da, maiatzetik ari direla entseguetan herriko 80 lagun inguru antzerkiak, dantzak, bertsoak, garaiko orkestinak, Kaxianoren abestiak... prestatzen. Eta jaialdi hori herritarren artean egingo badute, irailaren 25eko ekitaldietan inguruko herritarrek hartuko dute parte. Halaber, egun horretan Kaxianoren oroigarriaren aurkezpena egingo dute.

Bestalde, asmo horiek aurrera egin ahal izateko diru-laguntzak behar dituztela azaldu dute, eta erakunde, elkarte, enpresa edo norbanakoei zabaldu nahi izan diete deia. Ekitaldi horiek burutu ahal izateko lagundua nahi dutenek, 2101 0043 1700 1162 5985 (Kutxa) edo, 3035 0028 1902 8009 5776 (Euskadiko Kutxa) kontu korronteetan egin ahaliko dute.

Haren musikaz, bertsoez, idatziez... Kaxianoren bizitzaz gehiago jakiteko aukera polita izango da, beraz, irailaren,

LEABURU ▶

Larresoroko Harrizko Zubiko bazkaria bihar

Irteera antolatzen duen Ote Lore elkarteak 21 urte beteko ditu aurten

I.TERRADILLOS

Urtero bezala, Larresorora joateko aukera izango dute leabuarrek bihar, Ote Lore elkarteak antolatzen duen Harrizko Zubiko bazkaria. Hain zuzen ere, elkarteak sortu zenetik antolatzen hasi ziren Harrizko Zubiko bazkaria.

Euskal kultura eta hizkuntzaren alde lan egiten duen elkarte da Ote Lore, eta aurten 21 urte beteko dira bere sorreratik. Festa berezi honetako antolatzaileek «egun goxo bat pasatzera gonbidatu» nahi dituzte herritarrek, «leku eta giro zoragarri batean». Irteerara joateko izenematea, 943 67 59 31 telefono zenbakira deituta egin ahaliko da. Horretarako, 20 euro ordaindu beharko dute helduek, eta 10 euro, berriz, gazteek.

Larresorora joateko autobusa bihar irtengo da 10:00etan Txaramatik, eta 10:15ean Leaburutik. Eguerdi aldean zintzur bustitzea izango da, eta bazkaria 13:30ean egingo dute. Entsalada, marmitakoa, ardi gasna, deserta, kafea, eta ondokoa izango dute bazkaltzeko. Era berean, egun guztian zehar kantu eta dantza ugari egiteko aukera izango da, Sukanpil eta Ezteki musika taldeek alaituta. Halaber, mutxikoak, erromeria... ere izango dira. Eta talo jatea ere bai, 19:00etatik aurrera.

Egun polita igarotzeko aukera, beraz, leabuarrek bihar musika entzunaz eta bazkari legea eginez.

HERRI KIROLAK ▶

Erasun eta Otaño Euskadiko Bigarren Mailako Aizkolari Txapelketako finalean ariko dira bihar

Euskadiko Segia Txapelketako finalerdiak izango dira bihar Oiartzungo Pikoketa baserrian

I.TERRADILLOS

Bihar izango da Donostian, Loiolan, 19:00etan Euskadiko Bigarren Mailako Aizkolari Txapelketako finala, eta eskualdeko bi ordezkari ariko dira maila igotzeko helburuarekin.

Hain zuzen ere, Juan Manuel Erasun zizurkildarra eta Unai Otaño ibartarra dira Daniel Vicenterekin, Juan Jose Lopezekin, Xabier Mindegiaekin eta Manuel Kañamaresekin finalean nor baino nor ariko direnak. Aizkolariak egin beharreko lana, berriz, 54 ontzako 2 enbor, 60 ontzako 2 enbor eta 72 ontzako 2 enbor ebakitzea izango da. Otañok azaldu duenez, gustura egon da entrenatzen, baina azken asteetatik beherkada bat izan du; «ten-

tsioarekin gorabeherak izan ditut, eta horregatik ez dut neurre burua oso ikusten, gainera medikuek azken astean atsedent hartzeko gomendatu didate; ikusi beharko da igandean nola nagoen», azaldu du ibartarrak. Finalean ariko diren artean Lopez, Erasun eta Vicente jotzen ditu aurkari gogorren bezala. Bestalde, Erasunek adierazi duenez, ez du finalerako gehiegi prestatzeko aukera izan, pasa den asteke apustua dela-eta, baina «lehenengo edo bigarren postua lortzea» jarriko diola bere buruari helburu bezala azaldu du, horrela hurrengo urtean mailaz igotzeko aukera izango bailuke. Zizurkildararentzat, «faberitoak Lopez eta Vicente dira, baina Otaño eta Mindegia ere oso gogorrak dira».

Donostian izango den final honetaz gain, Oiartzungo Pikoketa baserrian ere herri kiroltako beste hitzordu garrantzitsua izango da, Euskadiko Segia Txapelketako finalerdiak, hain zuzen. 12:00etan izango

da eta Mikel Aranalde, Jesus Mari Ormaetxea *Urki* eta Andoni Goikoetxea lehiatuko dira. Hurrengo finalerdia abuztuaren 6an izango da Bizkaian, eta final handia, berriz, abuztuaren 21ean Oiartzunen bertan.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Agenda. Abuztuaren zehar Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan jaiak izango dituzte. Hitzak jai horien egitarauak jarriko ditu bere webguneko agenda atalean. Egin bisita, beraz, jaietara joan aurretik. Halaber, beste hainbat zerbitzu ere eskainiko ditu webgunek.

iragarki laburrak ▶

LANA Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.
Lan eskaera. Andrea eskaintzen da informeeikin irailetik aurrera arratsaldez lan egiteko. Deitu 685 701 016 zenbakira (15:00etatik 22:00etara).

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisuua igogailuarekin Laramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.
Salgai (Tolosa). Pisuua Belate Ibilbidean, Bista zoragarriak.
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate Ibilbidean.
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erremontari katean.
Alokatzeko (Tolosaldean). Garajeak Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidean, B. Zaldibia kalean.
Alokatzeko (Ibarra). Garajea Euskal Herria kalean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Belantza. Meza nagusia San Jose ermitan. Bihar, 12:00etan.
Villabona. Plater tiraketako sariketa, Amasamendiko Onddo zelaietan, gaur goizez, 11:30etik 13:30era eta arratsaldean, 16:00etatik 18:00etara, Loatzo Tiro Elkartearen eskutik. Izen ematea han bertan egin daiteke, adina eta generoaren araberako kuota ordainduz. Tiratzaileko 15 plater izanen dituzte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M. I.: Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Azpiroz, M. L.: Amaroz, 9. 943 675 118.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

11 urte, hameika ikusteko

LEITZA ▶ Torrea elkarteak festa egunak ditu hurrengo hauek, ireki zela XI. urteurrena betetzen baitu eta ospakizun eguna prestatu dute gaur zortzirako



XI. urteurrena —iazko festa goian—ospatuko dute aurten. A. GASTEARENA

JAIONE ASTIBIA

Abuztuaren 6an, datorren larunbatean, beraz, Torrea Eguna egingen dute Leitza, hain zuzen ere, Torrea elkarteak ireki zutela 11 urte bete baitira aurten, festa aurretxoko tenore honetan. 11 urtetan, hameika ikusteko izan dituzte, 2002ko festa ondoren, elkartearen egoitza «prezintatu» zietenekoa, esate baterako; ordutik halaxe dago.

Kontuak kontu, herrigintzan jarraitu dute, maiztasun batekin kultur ekitaldiak antolatuz, herrian erreferente izanez. Eta elkarteak beste urte bat bete duela eta, festa eguna antolatu

dute. Hasiera Torrean bertan egingen duten bazkariarekin emanen diote: jaki goxoak izanen dituzte mahai gainean —entsalada nahasia, bakaila-oa saltsan, prasan erretako txekor-saiheskiak, sorbetea, kafea eta kopa— eta bertara joateko txartelak 25 euroren truke salgai omen daude gaurdanik, bezperara arte; bazkalondo luzearen ondoren, 19:00etan, ekitalditxoak egingen dute plazan, dantzari, txalapartari, bertolari eta hizlariekin; eta ondoren, herrian barrena kalejiran ibiliko dira, musika jotzaileen doinuak, festa giroan, «ez ditugu alferrik igaro eta 'hamaika' hauek», ziotenez.

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK

Aitor eta Ione (Tolosa-Alegia).

Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Etxekoan partetik.



URTE ASKOAN

Maitane Goikoetxea (Amaroz). 7 urte abuztuaren Zan. Zorionak eta ondo pasa printzesa. Aita, ama eta Iraitzen partetik.



URTE ASKOAN

Amona Marina (Izaskun). Abuztuaren 14an urteak. Zorionak amona. Zure iloba Aimar, Iraitz eta Ugaitzen partez. Ondo pasa!



URTE ASKOAN

Iraitz Garitano (Izaskun). Abuztuaren 28an 11 urte. Zorionak Aimar, Ugaitz eta familia guztiaren partetik. Ondo pasa!



URTE ASKOAN

Joxi (Izaskun). Gaur urteak beteko ditu. Zorionak eta ongi pasa Kakun eta familiaren partez.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaiobernak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 beheko - TOLOSA Udalezko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri, mila esker!

AGURRAK ▶



Heriotza gogorra dugu gehiengan. Batez ere gertuko lagun bat denean. Tristura da nagusi halako unean. Malkoz agurtu ginen IKER azkenean berriro elkartzeko itxaropenean.

I. URTEMUGA

Iker.

Ospelako lagunak.

Iker San Sebastian Goñi

2004ko uztailaren 30ean hil zen, 24 urte zituela

(I. urteurrena)

Amaren bihotz zaurituaren sendagarria zu zera askotan zatoz aitaren bihotz samindua goxatzera arrebak ere sarri zakartzera oroimen goxoz etxera amonak ere otoitzen bidez zuri hizketan hortxe dira beti gurekin bizi zera iker lehen bizi zinen antzera.

Bihar igandea, Ugarteko Errosarioko amaren elizan goizeko 10:00etan izango den mezetara gonbidatuta zaudete.

